



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

FERIXA NAGUSIKO JAIXAK 2026 KARTEL LEHIAKETA

DEIALDIA

Aurkezteko epea: maiatzaren 4tik 24ra bitartean.

Saria: 100€.

Obra guztiek inskripzio hau eraman behar dute: **“FERIXA NAGUSIKO JAIXAK 2026 ELGETA”**, berau baita deialdiaren xedea. Ferixa Nagusiko jaien data ere agertu behar da kartelean **“uztailaren 2tik 5era”**.

Saritua aukeratzeko modua: buztin gelan erakutsiko dira lanak eta on-line edo aurrez aurre bozkatu. Boto gehien jasotzen duena izango da **irabazlea**.

Oinarriak: jarraian kontsultagai.

Elgetan, 2026eko maiatzaren 4an



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

FERIXA NAGUSIKO JAIXAK 2026 KARTEL LEHIAKETA

OINARRIAK

1. Edonork har dezake parte.
2. Formatua A3 neurrikoa izan behar da.
3. Lan guztiek originalak izan beharko dute.
4. Lanak euskarri digitalean (jpg. formatuan) aurkeztu behar dira derrigorrez.
5. Nahi beste lan aurkeztu ahal izango dira.
6. Estiloa (koloreak, konposaketa...) eta gaia libreak dira, dena den, kontuan hartu beharko da deialdiaren zergatia. Ez da hizkuntza zein irudi sexistarik, homofoborik edo/eta xenofoborik onartuko.
7. Ezin dira irudi-eskubideak dituzten elementuak erabili.
8. Pertsonen argazkiak erabili daitezke baldin eta hauen baimena aurkezten bada, edo tutoreena adin txikikoa bada.
9. Ezin da argazki zaharrik erabili.
10. Obra guztiek inskripzio hau eraman behar dute: **“FERIXA NAGUSIKO JAIXAK 2026 ELGETA”**, berau baita deialdiaren xedea. Ferixa Nagusiko jaien data ere agertu behar da kartelean (**uztailaren 2tik 5era**).
11. Aurkeztu beharreko dokumentazioa:
 - a. Lana formatu digitalean.
 - b. Egilearen izena, bi abizen, NAN, helbidea eta telefono zenbakia.
kultura@elgeta.eus helbidera bidali behar dira bai lana, bai eta gainontzeko datuak ere.
12. Sari bakarra izango da: 100 €, garbi.
13. Kartelak aurkezteko azken eguna: **maiatzak 24**.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

- 14.** Kartel irabazlearen hautaketa prozesua honako hau izango da: kartelak buztin gelan eskegiko dira eta herritarrek on-line edo aurrez aurre botoa eman ahal izango dute maiatzaren 25etik 31ra. Boto gehien jasotzen duen kartela izango da irabazlea.
- 15.** Kartel irabazlea zein izan den ekainaren 1ean emango da jakitera.
- 16.** Ez da saririk emango epaimahaiak horrela irizten badio. Epaimahaiaren erabakia apelaezina da.
- 17.** Obra saritua Udalaren esku geratuko da, eta Udalak lana erakutsi eta argitaratu egin dezake horrela irizten badio.
- 18.** Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.